

bidegileak



Juan Mari Lekuona (1927)

Egileak:

ELIXABETE PÉREZ GAZTELU

ANA TOLEDO LEZETA

ESTHER ZULAIKA IJURKO

Lekuonatarren habia

Juan Mari Lekuona Berasategi Oiartzunen jaio zen, 1927ko azaroaren 11n, San Martin egunez. Bruno Lekuona Etxabeguren eta Tiburtzia Berasategi Gaztelumendi, *Diburtxi*, ziren gurasoak. Aita *Etxetxiki* izeneko Oiartzungo kaleko baserrikoa; ama, berriz, *Beriberri* mendi-baserrikoa. Oiartzungo kaleko etxetxo batean sortu ziren Juan Mari eta bere lau senideak: Primitiva (1924), Jose Luis (1925), Andoni (1932) eta Julen (1938).

Orduko Oiartzunen 4.500 bat lagun bizi ziren (2000. urtean, 9.000tik gora), euskaldunak ia denak. Nekazari-

tza ogibide garrantzizkoa zen. Ez ziren, baina, oiartzuar guztiak lurra lantzetik bizi. Juan Mariaren aita, Bruno, urrutirago gabe, ez zen nekazaria; arotza zen lanbidez eta hainbat tokitan lan egin zuen, besteak beste, Pasaia-ko portuan, urteetan.

Juan Mari mutikotan oso alaia, berritsua, bizia... omen zen, geldirik egoten ez dakiten horietakoa: dantzaria (dantza-lehiake-



Juan Mari Lekuona (1927)



Lekuona-Berasategitarak Juan Mari apaiztu zen egunean, Arrasaten. Zutik: Primitiva (arreba), Tiburtzi (ama), Juan Mari, Bruno (aita), Jose Luis (anaia). Makurtuta: Andoni eta Julian, anaiak



Joan Mari mutikotan

ta batean irabaztuna ere izan zen), antzerkian ere bere saiotxoak egin zituen gurasoek gobernatzen zuten Oiartzungo batzokian eta, batez ere, kirolari amorratua. Futbolean eta pilotan oso trebea ei zen. Herrian ere halaxe ikusten, nonbait. Apaiz egitera zihoala jakitean herritar batek esan omen zuen:

— Pena handia da, gero, halako pilotari bikaina alferrik galtzea!



Mendia, zaletasunik kuttunenetakoa

Kirolzaletasuna, gainera, ez du galdu urteen poderioz: futbolean gaztetan, mendian —gaztetan eta ez hain gaztetan—, igeri egiten...; klasikoei segituz, «mens sana in corpore sano» (adimen argia gorputz osasuntsuan) ikurritza guztiz beretu du Juan Mari Lekuonak.

Mojen eskolara joan zen mutikotan (erdaraz ziren orduan ikasketak), baina Juan Mariren heziketan beste «eskola» batek, beharbada, eragin handiagoa izan zuen: diruz xumea, baina bizitzaren beste hamaika alderditatik



xx. mende erdi aldeko Oiartzun. San Juan kalea



Beriberrin
Lekuona-Berasategitar
guztia, ilobak barne



Garai bateko *Etxetxiki*.
Egun ez dirau zutik

oso aberatsa zen Lekuona-Berasategitarren sutondoa; ahozko kulturaren egosleku auke-rakoa.

Berinberri Berasategitarren baserria bizileku izan zuten urte askoan, gerratearen inguruko urteetan batez ere, eta hango amona zahar-rak, amona Kontxexik, eskasian bizi baziren ere, ez zuen barkatzen igandeko mezetara herrira jaitsi eta «Bertso-paperak» erositak baserrira itzultzea. *Berinberrin* irakurtzen ze-kien bakarra amona izaki (esan dugu oso fa-milia xumea zela), hantxe edukitzen zituen guztiak, helduak eta umeak, adi-adi bertsoak entzun, kantatu eta buruz ikasten. Hortxe ezagutu zuen Juan Marik umetatik bertso za-harren mundua.

Etxetxiki Lekuonatarren sorlekutik, berriz, kanturako zaletasuna, ia-ia grina, datorkio: ez zen, eta egun ere ez da, senide arteko ospa-kizunik kantuek laguntzen ez dutenik. Hor-txe ditugu horren lekuko Juan Marik berak egindako kantuak ez ezik, Andonik eta batez ere Julen anaiek sortu eta egokitutako ha-maika euskal kantu.

Batetik zein bestetik oso giro euskaldun, eus-kaltzale eta fededunean hazi zen Juan Mari. Aitaren anaia, osaba Manuel apaiza —On Ma-nuel Lekuona, «Lekuona zaharra»— orduan, 1936 baino lehen, Gasteizen zen irakasle Apaizgaitegian eta gutxitan etortzen zen Oiartzuna. Osaba Martin, berriz, aitaren anaia eta apaiza hau ere, Erreterian zegoen

apaiz eta oso maiz hurbiltzen zen Juan Mari eta bizi ziren etxera.

Osaba honek euskararena ez ezik heziketa-ren kezka ere bazuen: Primitiva, Jose Luis eta Juan Mari hiru senide zaharrenei akolito iza-teko erakutsi zien, latinez ere bai... Bada pa-sadizo bat osaba Martinen euskaltzale-tasunaren eta erakusteko kezka horren ondoan Oiartzungo hizkuntza-egoera ispilatzen due-na. Hauxe: Juan Marik sei bat urte zituela osaba Martin Musitun (Arabako Arraia-Maeztu udalerrian) zegoen apaiz eta, zer gogora-tuko? Bada, udan Juan Mari hara eramatea bertako neska-mutikoekin jostatuta euska-raz erakusteko. Juan Marik, etxera itzuli ze-nean, guztiz harrituta esan omen zuen: «Han behie eta guzti erdaraz egiten diote!».

Hizketagai dugun giro hori guztiz era borti-tzean eten zuen 1936an piztu zen gerrateak.



Hiru anaiak kantatzen Pagoarten, Oiartzunen, 1998ko udan

Gerratearen gaitzak (1936-1940)

1936ko uztailaren 18an piztu zen gerratearen gaitzek Lekuonatarren bihotz-bihotzean jo zuten. Urte horretako irailaren bukaera aldera (San Migeletan) Julian Lekuona Etxabeguren, osaba Julian (hau ez zen apaiza), Oiartzungo udaletxera deitu omen zuten. Juan Mari han zebilen arkupetan pilotan jostatzen eta osabak dirua eman eta eskatuzion alpargata pare bat erosteko. Baita Juan Marik halaxe egin ere. Juan Mari izan zen osaba Julian bizirik ikusi zuen azkena. Oiartzungo eta Erretereriako beste gizon batzuekin batean kamioietan sartu eta eraman omen zituzten Endarlatsa aldera, peskizan ibili den Andoni Lekuona Juan Mariren anaiak gerora jakin duenez. Familiak ez zuen haren berri gehiago izan, ez gorpua inon aurkitu. «Desagertu» zen betiko.



Teodoro Iñarrarekin Arrasaten

Lehen aipatu dugun osaba Martin aski ezaguna zen Erretererian gazteekin (Koldo Mitxelenaekin besteak beste) egiten zuen lanagatik. Anaiarena gertatu ondoren alde egiteko esan zioten, hurrena bere bila joango zirela, baina ez zuen aintzakotzat hartu. Handik egun gutxira, Donostiako Ondarretako kartzelan sartu eta 1936ko urriaren 8an, Martin ere atxilo hartu eta Erretereriako apaiz Gerbasio Albisu eta beste jende batzuekin batean Hernaniko harrobian fusilatu zuten.

Gasteizen zegoen Manuel anaiak garbi asko ikusi zuen gerrate hartan hutsa ere aski zela bizia galtzeko. Gasteizko bere liburu eta paper guztiak etxera, *Etxetxikira* —lehenagotik, Migel Antonio Iñarraren eta Martin Lekuonaren liburuak jaso zituen jaiotetxera— bidali eta Frantziarako ihesa prestatu bitartean Lasartera joan zen han bizi zen arreba baten etxera. Frantziaraino ez zen iritsi; Lasarten bertan geratu zen. Gauza jakina da han bost urte, 1941 arte, eman behar izan zituela ezkutuan moja brijidatarren komentuko Antonio Abauntz kapilauaren etxean.

Esan beharrik ez dago horrek guztiak Lekuonatarrengan utzi zuen samina eta izua.

1940an, gerraoste gogorraren hasieran, Teodoro Iñarra izter-lehengusuak (Juan Mariren gurasoen lehengusuordeak) bera apaiz zegoen herrira, Arrasatera, eraman zuen urtebeteko, Bergarako «Apaizgaitegi txikian» sartzeko presta zedin. Juan Marik 13 urte zituen.

Heziketaldia (1940-1966)



Apaiz bidean aurrera (1940-1953)

1941etik 1942ra Bergaran bukatu ditu ikasketekikoak Juan Marik eta 1943an apaiz-ikasketak egitera Gasteizko Apaizgaitegi Nagusira doa; bere bizi-tzan eta lanetan hainbesteko eragina izan duen osaba Manuelek bortxaz utzi behar izan zuen berberera, alegia.

Bortxa eta kalte ikaragarriak ekarri zituen gerrate hark, paradoxikoki, erraztu egin zuen nolabait Juan Mari-ren gogoia bideratzen hastea; izan ere, gerrate horrexek berak euskal liburu-tegi ongi hornitua jarri zion eskura: osaba Manuelek Gasteiztik ihes egi-



tean *Etxetxikira* bidali zuena, alegia. Inor gutxi-
k zen aukera izan zuen Juan Marik euskal
poesia irakurtzeko.

Gasteizko Seminarioko formazioak, bestalde,
literaturaren gaineko ikaskuntzetarako bidea
ireki zion: predikariak nahitaezko ditu Erre-
torikako ikasketak. Erretorikako ikasketez
gain, deklamazioko eskolak ere izan zituen
eta eskola horietan astean behin poesiak
errezitatzen zituzten. Honela bada, apaizgai
zen urteotan jasotako heziketak gero landu
dituen alorretarako oinarriak jarriko ditu:

apaiz-lana, literaturari buruzko ikaskuntzak,
poesia.

Garai honetakoak ditu lehen poesiak: poe-
ma solteak dira eta ez batasuna duten poema-
multzoak. Baina idatzi ez ezik, jendartera ere
zabaltzen ditu: *Egan* aldizkarian («Or zaude
Jesus aldarean», 1950) eta sariketetan batez
ere. Esate baterako, Falange Españolako
«Educación y Descanso» zelakoak antolatu-
tako «Santo Tomas» sarira aurkeztu zuen
«Izadi abestia» (1950) eta lehen saria era-
man (*Egan*, 1950). Hurrengo urtean ere an-



Gasteizko seminarioan. Juan Mari, zutik, lehena eskuinetik hasita

tolatu zuten «Santo Tomas» saria: deialdiak zioenez «Ama» zen erabili beharreko gaia. Juan Marik «Ama» (1951) aurkeztu zuen eta berriro lehen saria irabazi. Sariketa hauetako emaitzek Juan Marirengan uste haxe indartu zuten: bere konpromisoa euskal gizartearekin poesiagintza zela.

Bien bitartean, oporretan, udaran eta Eguberrietan, Oiartzuna joaten zen, etxera. Hemen, ikasle eta beste lagunak elkartzen ziren askotan literatur gaiak eta, batez ere, kantuak, zaharrak eta berriak astindu eta jorratzeko. Horrela, Lekuonatarren San Juan kaleko etxea ahozko kulturaren egosleku ez ezik, belaunaldi gazte eta euskal kulturak kezkatuaren mintzatoki ere bihurtu zen. Xabier Letek eta beste hainbatek aitortu dutenez, urte askoan halaxe izaten segitu zuen etxe hark.



Jaume Font i Andreu Juan Mari apaizten. 1953.07.05

Apaiz eta doktore. Erromatik Donostiara (1953-1966)

1953an Juan Marik apaiz-ikasketak bukatu zituen. Jaime Font i Andreu orduan Donostiako gotzaina zenak ordenatu zuen apaiz 1953ko ekainaren 29an, Arrasaten, baina lehen meza emateko sorterrria, Oiartzun, jo zuen begiz Juan Marik. San Esteban parrokian egin zuen, 1953ko uztailaren 5ean, osaba Manuel aitajaun zuela eta apaiz-bidean gidari izan zuen Teodoro Iñarra arestian aipatu duguna predikari.

Elizako agintariak ikasteko dohainak ikusiko zituzten Juan Marirengan, ez baitzieten apaiz guztiei ikasten segitzeko aukera ematen. Juan Mari ikasten jarraitzera bultzatu zuten. 1953ko urriaren 12an Erromara abiatu zen lehen aldiz, «Universidad Gregoriana» izenekoan Teologia Ispiritala ikastera. Ez zen izan Juan Marik Erromara egin zuen bidaia bakarra; ikusiko dugun bezala, 1953tik doktore-tesia aurkeztu bitartean (1966) hainbat alditan egon zen Italiako hiriburuan.

Lehen egonaldian bi ikasturte egin zituen, 1953tik 1955era eta Teologian lizentziatu. Ezin esan Erromako bidaiari etekinik atera ez zionik. Ikasketez gain, harreman berriak sortu zituen: Erromara zihoala Lourdesen egin zuen geldialdian Pierre Lhande hiztegi-ile ospetsua ezagutzeko parada izan zuen; Erroman bertan oso lagun onak ere egin zi-

tuen, batzuk ezagun askoak: Jose Sebastian Laboa, Pasaiakoa, gotzaina eta Vatikanoko nuntzioa, J. Ignazio Telletxea Idigoras jesulagun donostiarra, historialaria, Jose Mari Sietien hernaniarra (1979tik 2000ra Donostiako gotzaina izan dena), Jean Hiriart Urruti euskal idazle eta euskaltzain lapurtarra, Angelo Giuseppe Roncali kardinala, handik pixka batera, 1958an, Juan XXIII aita santua izatera iritsiko zena eta Vatikanoko II. kontzilio berritzaile sonatua deitu zuena...

Baina Erromari beste probetxurik ere aterazio: ikasi bitartean poesiak idatzi zituen. Garai honetakoak dira «Begi beltzaren» (1954), «Goiz-argi» (*Euzko-Gogoa*, 1954), «Ubel» (*Euzko-Gogoa*, 1955), «Aize-errota» (*Euzko-Gogoa*, 1955)...

Ikasketen aldi luze honetan idatzitako poema solteen aukera bat *Muga beroak* poema liburuan argitaratu zuen 1973an.

Tesi-gai Portugalgo XVI. mendeko fraide bat aukeratua zuen, Fray Bartolomé de los Mártires, Trentoko kontzilioko teologo ospetsua, eta gaiak hartaratuta 1955-1956 urte bitartean Coimbran izan zen, Portugalen, tesirako materiala biltzen, ikerketan aurrera egiten.

1956ko abuztutik 1959ko irailera Añorgako parrokian izan zen apaiz laguntzaile moduan. Añorgako denboraldi honetan ez du poesiarik idazten, beste era bateko testuak baizik; elizan kantatzekoak. 1970 arte gutxienez ondokoak eginak ditu: «Jaun ona», «Azken aforiaz gero, Jauna», «Zeru-lurren egile zaren»; hiletetako hauek ere bai: «Gaur senide hau», «Herio jasak»... Horietako batzuk, Añorgatik zabaldu dira Euskal Herriko herri askotara eta oraindik ere elizetan kantatzen dira.

Baina bestelako kantu elizakoak ez direnak ere egokitu ditu euskarara. Añorgan zegoela, «Zergatik aitona», «L'homme et l'enfant» mo-



Juan Mari amari idatzitako gutuna eta Erromako bizilekua



Roncalli kardinala Pasaian, 1954ko uztailaren 18an.
Atzean Juan Mari, eskuinean

dako kantu frantsesa, euskaratu zuen (1956). Garai hartan boladan zeuden beste bi kantu ere gutxienez euskarara moldatu zituen: «Gaztetxo naiz» (1965) (1964ko San Remo-ko jaialdia irabazi zuen «Non ho l'età», Gigliola Cinquetti eta Patricia Carli italiarrek kantatua), eta «Arratsa Moskun» (1967) (Errusiako kantu ezaguna, 60-70eko hamarraldietan aski boladan egon zena). Euskal aldaera biak Jose Antonio Villar Ez dok *amairu* taldeko abeslariak *Basque Party* izeneko 45 itzuliko disko bannatan grabatu zituen, Baionan.

Juan Marik kantu horiek itzultzeak erakusten digu kantuen mundua oso gertutik bizi izan duela beti eta ikusten zuela euskal gizartea berritzeko, kanpoko berrikuntzak euskal mundura ekartzeko premia; hau da, euskara eta nazioartea lotzekoa.

1957an osaba Manuelekin elkarlanean *Ezkon-gai* itzulpen-egokitzapena kaleratu zuen. Ja-



torriz frantsesez zena lapurterara itzuli zuten Belokeko fraideek eta Lekuonatarrek testu horixe gipuzkerara aldatu zuten. Hauxe da lanaren mamia: «Gazteak ezkontzara itsuan joan ez daitezen eta ezkon-auzia barne ezagut dezaten». Ez du literaturarekin zerikusirik; eliz giroko lana da.

1959-1960ko ikasturtea Erroman egiten du ikasketetan sakontzen. Handik itzultzean Satturrango Seminario txikira doa apaizgaien irakasle eta prefektu izatera. Gramatika eta Erlijioko eskolak ematen ditu. Mutrikuko ikastetxe honetan hiru ikasturte eman zituen: 1960tik 1963 arte.

Azken urte horretan bertan (1963) euskaltzain urgazle izendatu zuten.

1963ko irailean Donostiako Seminario Nagusira doa irakasle, eta apaizgai «filosofoen» kontzientziako gidari edo hezitzaile bezala aritzen da. Donostian den aldi honetan gorabeheraren bat sortu eta hezitzaile-taldeko kideek karguak Apezpikuaren esku utzi zituzten eta honek dimisioak onartu zituen. Haren ondorioz, Juan Marik Erromara joateko baimena eskatu zuen aurreratu samarrik zuen tesia amaitzera. Nagusiek onartu zuten eskea eta Juan Mari Erromara joan zen.

1965-1966ko ikasturtea han eman zuen eta bere egonaldiaren buruan *Ideario ascético-pastoral de Fray Bartolomé de los Mártires (1514-1590)* izeneko tesia aurkeztu zuen. Latinez egin zuen tesia aurkezteko hitzaldi luzea.



Erroman Juan Mari Juan XXIII
aita santuaren ondoan

Gotzaindegian. Irakas- kuntzan. Euskaltzain- dian. Poesiagintzan

Gesia bukatzeaz gain, azken urteetan alde batera utzita zeukan poesiagintzari berriro heltzeko asmoa ere bazerabilkien. Horren fruitua da tesia aurkeztu zuen urte bereko «Mindura gaur» (1966) poemarioa. Lehen poemategi hau ere literatura-sariketa baterako prestatu zuen: Donostiako «Agora» sarirako, hain justu. Saria eta hiru aipamen berezi eman zituzten. Aipamen berezi horietako bat eraman zuen Juan Mariren lehen poemategiak. Donostiako apaizgaiek argitaratu zioten ziklostilean.



Donostiako seminarioa

1966ko urrian Donostiako Apaizgaitegi Nagusian da eta urte horretan hasten du Gotzaindegiaekin lotuko duen harreman luzea. Donostian apaizgai «filosofoen» arimen zuzendari lanean dihardu urteetan, Saturraranen bezala. Apaizgaiei euskara irakasten ere hasten da eta horretan ibiliko da 1978an utzi zuen arte.

Apaizgaitegiko zereginekin batean, Liturgiako taldean lanean hasten da: salmo eta abarren itzulpen eta egokitzapenak, Gotzaindegiko testu ofizialen itzulpenak...

Eginkizun hauetan diharduela, bere bigarren poemarioa —«Hondarrean idatzia»— marmitzen du eta ordu arteko ibilbide poetikoa jasotzen duen *Muga beroak* (1973) argitaratzen.

Franco hil ondoren (1975ean hil zen), Euskal Filologia unibertsitatera iristen da. Jesuitek lizentziatura hori jartzen dute Deustuko Unibertsitatean. Donostiako egoitzan —orduan EUTG deitzen zen hartan— jartzearen arduraduna Aita Patxi Altuna zen, eta Juan Mariri deitu zion lizentziaturako irakasle izan zedin.

1978-79 ikasturtean hasten da Juan Mariren unibertsitateko bidea. Hogei urteko bide aberasgarri horretan hainbat gai eman ditu (Euskal Testuak, Ahozko Literatura...), baina, beti ere, literaturaren eta, batez ere, ahozko literaturaren eremuaren barrenean.

1992-1993 ikasturtean katedra eskuratu zuen eta 1997an erretiratu zen bizitza akademikotik.

Irakaskuntza ikerketaren eragile bihurtzen zaio: eskolak eman beharrak azterketa sustatzen du. Ordurako hasita bazegoen ere euskal



Epaila-lanean sorterrian, Madalensoro pilotalekuan, osaba Manuel eta Oiartzungo bertsolari batzuekin. Ezker-eskuin: Juan Mari, Koxme Lizaso, Martin Urtegi Belaunzarán *Bakailo*, Inaxio Pikabea Mitxelena *Portugal*, Jose Luis Lekuona Garaia *Lexoti* eta Manuel Lekuona

Osaba Manuel lurperatzen. Zutik ezkerretara Juan Mari. Gorpua lurpean sartzen, eskuin aldean, Julian eta Andoni. Begira, besteak beste, Joseba Arregi eta Imanol Murua



ahozko literaturari buruzko ikaskuntzak argitaratzen, irakaskuntzaren eskakizunek bultzatzen dute orain azterketara eta berau jendarteratzera. Familiatik zetorkion zaletasunarekin bat eginaz berriz ere —On Manuelen urratsetan— jarraipena emango dio: herri-literatura du irakaskuntza- eta ikaskuntza-gai nagusia. Ez bakarra, ordea, noiz edo noiz literatura landuaz ere arduratzen baita: behin edo behin eskolak eman, azterketak egin...

Han-hemenka argitaratu dituen artikuluen gainera, ikaskuntzen alorrean hedapenik eta eraginik handiena izan duena *Ahozko euskal literatura* (1982) liburua da.

Esan dugu euskaltzain urgazle izendatu zutela 1963an. Akademiarekin duen lankidetzan

isilpean gera zitezkeen jardunez gain, bada ageriko arrastorik ere. Horren lekuko, «Txirrri eta Basarri», *Euskera* Euskaltzaindiaren aldizkari ofizialean argitaratutakoa edo hainbat bertsolari-txapelketarako epaimahaietan Juan Mari epaile aritzea, orduan txapelketa hauek antolatzen zituen Euskaltzaindiaren izenean.

Guztiarekin ere, irakaskuntza-ikaskuntza eta abarretan buru-belarri sartuta ibiltzeak ez dio eragozten bere barrenak eskatzen dion lantegiarekin jarraitzea. Bere hirugarren poemarioa jasotzen duen *Ilargiaren eskolan* liburua kaleratzen du (1979).

Osaba Manuelen heriotzak hutsik utzi zuen lekua betetzeko hautatzen dute euskaltzai-



Euskaltzaindian sartzea, Oiartzungo udaletxean. Juan Mariri eskua ematen Jose Mari Satrustegi euskaltzaina, alboan Luis Villasante, euskaltzainburua; atzean, Henrike Knörr euskaltzaina

nek 1987an. Ordu ezkerro euskaltzain osoa da. 1988ko uztailaren 30ean egin zuen Oiartzunen sarrera-hitzaldia: «Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz». Jean Haritschelhar euskaltzainak erantzun zion.

Urgazle zenean bezalaxe, orain euskaltzain osoa dela, «Herri-Literatura» batzordeko kide izaten jarraitzen du. Gerora, Euskaltzaindiak «Literatura-ikerketak» izenekoak ere sortu zuen. Bi lantalde hauen arduraduna eta biak biltzen dituen Literatura batzordearen burua da.

Euskaltzaindian dituen egiteko akademikoei kudeaketa eta erakundea ordezkatzeko lanak eransten zaizkio: 1989. urtean bertan Euskaltzaindikoko lehendakariorde izendatzen



dute (1989-1996) eta Donostiako ordezkari-tzako buru. Azken kargu horretan dihardu egun oraindik ere. Era berean, urte batzuetan Euskaltzaindiaren ordezkari gisa Madrilgo «Premio Nacional de las Letras» eta «Premio Nacional. Modalidad de poesía» delakoetan epaimahaiko izan da. Baita ere BBK-Euskaltzaindiak antolatutako «Felipe Arrese Beitia» sarian, edo Irun sari entzutetsuan.

1989an, «Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko» (EIZIE) lehendakari ere izendatzen dute eta 2002an elkarte bereko ohorezko bazkide.

Argitaratu duen azken poemategia *Mimodramak eta ikonoak* (1990) da. Euskadi Literatur saria eman zioten.

tal honetan zatika ikusiko dugu Juan Mariren langintza. Horrela aurkeztearen ondorioz langintzak berak zatikatu itxura har dezake. Ez da horrelakorik, ordea. Sakonxeago begiratzen badugu ohartuko gara badela ezkutuko lokarri bat alderdi eta atal guztiak lotzen dituen. Nolabait esan, Juan Mariren poesiaren itsasora datoz erreka guztiak, ez baitugu ahaztu behar Juan Mari deus baino lehen POETA dela; horrelaxe airtortu baitu beti berak bere burua.

Irakaskuntzan literatura —herri-literatura batez ere— aztergai du, eta horixe plazaratzen du ikaskuntzetan. Baina aztertzen duen literatura horrek bestetarako ere balio dio. Juan



Mariren hizkera poetikoa osatzeko iturri emankorra da. Mendez mende egiten joan den mintzairaren eta kulturaren hiztegi erraldoi hau barren-barrendik ezagutzeak bertatik hartzeko aukera paregabea ematen dio. Altxor horretatik datorkiona eta bere garaikoa batuz lortu du Lekuonak bere hizkera poetikoa. Horrez gain, itzulpengintzatik ikasitakoak ere lagundu dio hizkuntza lantzen, trebatzen. Guztia da bere poesia, hizkera poetikoa eratzeko baliabide emankorra.

Itzulpen-egokitzapenak

Esan dugu Gotzaindegian lanean aritua dela. Hango eginkizunen artean testuak (eliza-koak, ofizialak...) euskaratu eta moldatzea ere egokitu zitzaion. Zeregin hori ez zitzaion oztopo bilakatu bere izaera barrenenaren bidean, poeta izatearenean, alegia. Justu kontrara. Itzultzen ibili denak ongi baino hobeki daki jardun horrek zenbateraino duen eska-



kizun bi hizkuntzak, itzulgaia eta itzulia, sakon ezagutzea: zenbat eta sakonago jakin hizkuntzak orduan eta hobeto, tresna gehiago izango ditu itzultzaileak bere lana txukun, egoki, eder egiteko.

Juan Marirengan, gainera, eginbehar horrek beste ondoriorik badu, hizkuntzan trebatzeaz haratago: bere hizkera poetikoa lantzen, aberasten, malguago egiten laguntzen dio. Itzulgaia egoki itzultzeko bertan sakondu beharrek testu horien estilistikan barneratzea dakarkionez, Juan Mariren beraren unibertso poetikoa zabaltzeko bitartekoa ere bada.

Lantegi honetan ez da beti bakarrik aritu; talde-lanean ere gogotik ibili da: Bitoriano Gandiaga, Mikel Zarate, Tomas Otxandorena, Joxe Mari Aranalde... izan ditu itzulpenean lagun. Berarekin auzolanean ibili direnek diote Juan Mari oso taldeko gizona dela, taldean lan egitera egokitzen dena, bere iritzia besteentzen ginetik ezartzen ahalegintzen ez dena; eraman handikoa eta lan batean hasiz gero horretan tinko segitzen duena.

Juan Mariren atal honetako langintzaren fruitu dira lehen aipatu ditugun kantuak, Gotzaindegiko testu ofizialen euskal itzulpenak, *Orduen Liturgiatik*: «Goratzarreak» (goizean esateko otoitzak), *Salmoak*, *Erantzun salmoak*...

1997an, berriz, «Klasikoak» bilduman, Johannes Eckhart eta Johannes Tauler pentsalarien *Mistika liburuak* itzuli zituen.

Ikaskuntzak

Gaurko begiek besterik ikusten uzten ez dugutenez, beti dena gaur ikusten dugun bezalakoa izan dela pentsatzeko arriskua dugu. Ez da, ordea, horrela izan ezertan eta ez da horrela izan euskal ikaskuntzen alorrean ere.

Herri-literaturaren ikaskuntzen alorrean, zehazki, izan zen gai horretaz arduratu zenik —osaba Manuel, besteak beste—, baina eskolako, unibertsitateko heziketa araututik kanpo. Irakaskuntzara iristeko, ordea, beharrezkoa da jakintza-gaiak bereak dituen azterbide zorrotzak aztergaira egokitzea, eta Juan Marik egoera berri horri aurre egin behar izan zion.

Juan Marirengan premia izan zen akuilu, izan ere, «Ahozko euskal literatura» ikasgaia irakatsi beharrak gai horixe aztertzea berarekin zekarren. Juan Mari ez zen hutsetik hasi eremu hori jorratzen, asko ez, baina baze goen aitzindaririk: bai testu-biltzaileak, bai aztertzaileak. Gainera, ondo-ondoan zeukan xx. mendeko ahozko literaturaren aztertzailer nagusietako bat: On Manuel Lekuona, osaba Manuel. Juan Mari huts-hutsetik hasia ez izanagatik, bazuen egitekorik bai azterbideetan, bai aztergaietan. Irakaste-ikerketek eskatzen dute azterbide zorrotzak erabiltzea, gaia osatzen, berritzen joatea. Eskoletarako prestatzen duen gaia, eskola emateak sorrarazten dizkion gogoetak, galderak eta galderak hauei eman beharreko erantzunak sis-

tematizatuz doa. Ofizioa eta bokazioa uztartuz egiten du ikaskuntzen bidean barrena.

Han-hemenka argitaratzen doa lantzen ari den ikaskuntzok. Ezagunena eta erabiliena, zalantzarik gabe, 1982an argitaratu zuen liburua da: *Ahozko euskal literatura*. Gainontzeko ikaskuntza gehienak aldizkari edo liburu-ruetako ataletan plazaratuak ditu, barrei. Erretiratu zenean, Deustuko Unibertsitateak lanik adierazgarrienak liburu batean bildu eta argitaratu zituen 1998an. *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)* du izena bildumak. Horrela eskertu nahi izan zion Deustuko Unibertsitateak hogeitaz urteko jarduna.

Liburuaren izenburuak iragartzen duen bezala, hogeita bi urte luze horietan euskal literaturaz egin eta argitaratu zituen azterketa franko biltzen ditu. Liburuaren aurkibidea begiratu besterik ez dago ohartzeko herri-literaturaren azterketak ez ezik, poesia landuarenak ere erakarri duela. Baina alde guztietatik begiratuta gehien landu duena herri-literatura da eta esan daiteke bere zabaltasun osoan atzeman nahi izan duela, gainera. Buruen-buruenik, ahazko euskal literatura izan du aztergai —ahotik ahora doana, oroimen hutsean gordetzen dena—, baina erdi-ahozkoa ere bai; hots, bertso-paperetako bezalakoa, paperetik (oroimenera eta hemendik) ahora doana, kantatzeko dena. Hain zuzen ere, Euskaltzaindian sartzeko egin zuen hitzaldian bi barruti horien arteko

aldeak, ezaugarriak, etab. aztertu nahi izan zituen: «Erdi-ahozkotasunaren literatur esti-loaz». *Berriberriko* amona zaharrak etxean sartu zuen ohitura hura ikaskuntzen mailara eramanez, nolabait esan, etxean piztutako zaletasuna eta eskolek sortutako premia, ahoa eta papera, etxea eta ikerketa uztartu nahi izan balitu bezala.

Herri-literaturaren estiloak mugatzeaz gainera, literatura honetan landutako generoak eta genero bakoitzaren ezaugarriak ikertu ditu: multzo batean narratiba, bestean poesia. Poesian, berriz, bai tradiziokoa, bai bertsolaritza. Herri-antzerki zuberotarrak jardutea ere ez du baztertu: herri-antzerki horrek landu dituen generoak deskribatu, xehetasun historikoak eman...

Azterbideez ere arduratu da; esate baterako, bi artikulutan herri-literaturaren azterketarako metodologia ikertu du.

Literatura landuaren barrutian poesia izan du batik bat aztergunean. Juan Mari poeta da eta poesia landuak erakartzen du. Jakin badaki bi mundu desberdin osatzen dituztela herri-poesiak eta poesia landuak, oso argi baitauka bakoitzak bere testuinguru, dinamika, teknika eta abar bereziak dituela. Berak herri-poesia du aztergai nagusi, baina barnean daraman sortzaileak argitaratzen den poesia landua irakurtzera eta aztertzerara darabada: besteren (besteak beste, Bitoriano Gandiaga, Mikel Arregi) poemarioei egindako

hitzaurreak eta argitaratutako hainbat artikulua dira horren lekuko.

Hitzaurregile edo «prologista» izate hori, gainera, oso gustukoa du Juan Marik. Metodo jakin bati jarraituz liburua irakurtzean atzeman ahal izango ditugun alderdi batzuk agerian jartzea du helburu. «Zerbitzuko kritika» izendatzen du Juan Marik berak zeregina; irakurleari —eta idazleari— obra hobeto ulertzen laguntzeko asmoz egindako kritika.

Guztiaren gainetik, hala ere, hitz neurtua, bertsoa, aztergai hartzean eta berau alderdi bakar batetik begiratzean, zalantzarik gabe, neurria eta erritmoa izan ditu alderdirik kuttunenak. Metrika izan du jorragairik estimatuena testuaren osotasuna aztertzerara bideratu ez denean.

Beste era bateko azterlanak ere egin izan ditu. Esate baterako, osaba Manuel Lekuona-ren bio-bibliografia, *Manuel Lekuona Etxabeguren* (1995), edo *Oiartzungo kantutegia* (1999) liburuak. Dena den, gisa honetako lan itzal handiagokoek ez dute eraman Lekuona sorterri txikiari bizkar ematera. Horren lekuko ditugu *Oiartzun* aldizkarian hainbat urtetan (1956tik hona) argitaratu dituen hogei-tik gora lan xumexeagoak: gaztaroko poesia batzuk («Goiz-argi», (1958)) eta, batez ere, Oiartzungo kulturako jakingarrien berri emateko lanak: bertsolariak, bertsoak, herritar ospetsuak, historia edo arte kontuak...

Poesiak

Txiki-txikitakoa du Juan Marik poesi zaletasuna. Gainera, izan zuen egarri hura sortu eta aldi berean asetzen joateko iturri oparoa: osaba Manuelek *Etxetxikira* bidali zuen liburutegia. Egarrria ase eta idazten zuena kanporatzeari ekin zion. Beharrik, 1939an bukatu zen gerraren ondoren ezarritako isilaldi luzearen ostean lehen zirrikituak irekitzen hasten dira Hego Euskal Herrian, 1950 urte ingurutsuan. Euskaraz argitaratzeko modua berreskuratzen den sasoi horretan du aukera Juan Marik bere lanak jendartera zabaltzen hasteko (ez ditzagun atzen lehen aipatu ditugun literatur sariketak). Urte horietan heltzen dio poesiaren bideari: «Izadi Abestia» poematik (1950) *Mimodramak eta Ikonoak* (1990) azken poemariora doan berrogei urte luzeko ibilbide etenik gabea.

Bistan da, hortaz, Juan Marirengan zaletasuna ez zela izan gaztaroko beroaldi iragankorra. Euskaltzaindiaren goiburua berea bailuen, «Ekin eta jarrai» aritu da Juan Mari; poesia ulertuaz egile-hartzaileen topaleku gisa; hots, bataren eta besteen esperientzien harreman-lekua.

Hiru poesi-liburuetan gauzatzen da elkargune hori. Lehena *Muga beroak* (1973) da. Berrez, antologia bat eta bi poemario jasotzen ditu. Alegia, hemen bilduta daude 50eko urteetako zenbait poema solte, 60ko «Mindura gaur» lehen poemategia (Donostiako Semi-

narioan ziklostilean argitaratu zutena) eta 70eko «Hondarrean idatzia» bigarren poemategia.

Bigarren liburua *Ilargiaren eskolan* (1979) da. Bi atal ditu: lehenak, «Oihu ilunak espiralean» poemarioa jasotzen du. «Liburuen karruxa» bigarrenean, berriz, herri-antzerkiko moldeez baliatuz, umorez eta ironiaz beterik begiratzen ditu zenbait pertsonaia eta kultur gertaera. Juan Mariren sorlanen luze-zabalean berezi samarra da.

Hirugarrena, berriz, *Mimodramak eta ikonoak* (1990) da. Honek ere bi zati ditu: «Gruteskoak» eta «Planeten adar-biran». Kobazuloa eta kosmoaren ilun-argien arteko dialektika aurkezten du Juan Marik bere irudimen munditik iragazita.

Harrezkero, ez du poesi-liburu berri gehiago kaleratu. Juan Mariren poesi gehientsuenak biltzen dituen antologia zabala argitaratu du 1996an UPV-EHUK «Gaur egungo euskal poesi» bilduman. *Ibilaldia/Itinerario (1950-1990)* du izenburu. Juan Mariren poesiak ez ezik, hauei buruzko azterketak jasotzen ditu —Juan Marik berak bere poesiagintzaz egina barne— eta guztia euskaraz eta gaztelaniaz ematen. Edizioaren bukaeran «Juan Mari Lekuonaren bibliografia» doa.

Juan Mariren sorlana bere zabalean hartuta ikus daiteke, etengabea izanik ere, ez dela ugaria izan. Noiz edo noiz gogorarazi zaio bere obra poliki-poliki eginaz joan izana. As-

tiro ibiltze hau ez da, ordea, esatekorik ez izatearen ondorioa, ezta nola esan ez jakitearena ere: leialtasunean dago gakoa. Lehenik eta behin, esandakoa berresateari uko egin dio; bigarrenik, hausnarketa sakonaren ondotik, poemategiaren egitura eta egitura hori beteko zuen hizkera artistikoa zorrozten nekagaitz jardun du. Berresateari uko eginaz, poemategi batetik bestera poetika-aldaketa ekarri dion ikerketan murgildu da. Gaia emateko arteak beharrezkoa duen egitura, arkitektura, Juan Marik pazientzia handiz eratu nahi izan du eta hizkera artistiko landuz jantzi.

Juan Marik literatura ez ezik, artea bere osotasunean barren-barrendik bizi du. Arteen arteko lotura azpimarratu izan du beti: langai desberdinez baliatzen diren garai bereko edo bertsuko adierazpen artistikoak bat etor daitezke mundua eta gizakia interpretatzeko ikuspegi estetikoan. Hurbildik jarraitu du artea hainbat adierazpenetan: eskultura, pintura, kantua..., inoiz zinema ere bai. Mintzabide horien artean, gertuenik Oteiza eta honek estetikaz emaniko azalpenak. Juan Mariren «Herri-poesia eta Oteizaren ulerkuntza estetikoak» ikaskuntza dugu horren lekuko. Baina, beste maila batean izanagatik, Chillida ere gogoan du. Bergman zinemagilearen «Gritos y susurros» («Garrasi eta xuxurlak») filmak zimiko egin zion Juan Mariri barrenean eta poesia-gai bihurtzeraino hunkitu zuen, nahiz eta beste adierazpen artisti-

ko baten akuilua behar izan hirugarren poemarioan gauza zedin. Akuilu hori Chillidak «Esku» izeneko aldia hasi zuenean sumatu zuen eta orduan heldu zion *Ilargiaren eskolan* liburuko «Oihu ilunak espiralean» poemate-




gia mamitzeari. Alegia, Juan Marik hizkera poetikoaren bidez adierazten du bere garaiko hainbat artistak beste modu batzuetara adierazten duten ulerkuntza estetikoak.

Sariak, omenaldiak...

Juan Mariren azterna

Euskaral gizarteak Juan Mariren lana saritu nahi izan du; 1990eko Euskadi saria, lekuko. Eskaini zaizkion omenaldiek ere horixe saritu nahi izan dute, bizi-tza osoko langintza. Hor ditugu, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateak *Ibilaldia/Itinerario (1950-1990)* liburuan gauzatu zuena (1996) edo Deustuko Unibertsitateak egina (1998), *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)* li-buruan gorpuztu zena.

Illo beretik, Koldo Mitxelena Kulturuneak, 2002ko apirilean «Juan Mari Le-kuona, kezka antropologoa» izene-ko jardunaldiak antolatu zituen. Oiartzungo herriak ere, urte berean, omendu nahi izan zuen. Juan Mariren



lanaren aztertzaileek Donostian eta Oiartzunen esanak *Egan* aldizkarian argitaratu zituzten.

Euskal Idazleen Elkarteak Juan Mari idaz-lea omendu zuen 1997an. Esana dugu Eus-kal Itzultzaile eta Interpretarien Elkarteak, EIZIEk, ohorezko bazkide izendatu zuela 2002 urtean.

Baina Euskal Herritik kanpo ere Lekuonaren lanek izan dute oihartzuna. Esate baterako, 1979an, Espainiako Kritikaren sari nazionaleko Euskal Poesiaren atalean *Ilargiaren eskolan* saritu zuten. Eta sari berbera eman zioten 1990ean *Mimodramak eta ikonoak* lanari. 1998an ere Galiziako PEN elkarteak «Rosalia de Castro» saria eman zion.

Sari eta omenaldien ondoan, garrantzizkoa da Juan Mari bidegilearen aztarna neurtzea. Eta horretan sartuz gero ohartzen gara aztarna horren luze-laburra ezin neur dezakegula ikuspegi bakarretik; gutxieneko kontuan, aztarna «musikadunaz» eta aztarna «isilaz» hitz egin behar da.

Esate baterako, bere eliza-kantuak orain ere kantatzen dira, egile Juan Mari dutela jakin gabe bada ere; jendearen oroimenean txertatu dira beste hamaika kantu geratu diren bezalaxe.

Itzulpen eta poesietako batzuen aztarnari segitzea, berriz, errazagoa da; kantarien diskoetan geratu dira aitatasun-aitortzarekin batean. Halakoak ditugu, esate baterako, ondokoak:

— Egokitzenak, moldaerak:

- «Zergatik aitona », Añorga, 1956.
- «Gaztetxo naiz». *Basque party-1*. J. A. Villar, 1965.
- «Arratsa Mosku-n». *Basque party-2*. J. A. Villar, 1967.

— Poesiak:

- «Errota zarra/Oraindik orain». *Lurdes Iriondo*. Lurdes Iriondo, 1974.
- «Aintzinaren arnasa». *Antton Haranburu*. Antton Haranburu, 1977.
- «Errota zaarra». *Indarra*. Indarra, 1979.
- «Kopla berriak». *Iratze okre geldiak*. Imanol, 1982.
- «Haragizko estatua/Ile adats». *Oroituz*. Imanol, 1985.
- «Ikusi nuenean». *Mea kulparik ez*. Imanol, 1986.
- «Pakea». *Sabin Salaberriren lana*. Sabin Salaberri, 1997...

Batentzat baino gehiagorentzat, apika, kantu bihurtutako lan horiek izango dira Juan Mari Lekuonaren poesiarekin topo egiteko modua eta Juan Mari «deskubritu» eta bere mundu poetikoan sartzeko maratila.

Aztarna musikadun horren ondoan, aztarna isilagoa utziko du eskoletan erakutsiak, herria bizileku izan duen literaturaren ikaskuntza unibertsitate-gelara eramatean, ikasle gogotsuen adimenean ereindakoak. Eskoletan erakutsitakoaren aztarna bezain isila, baina iraunkorragoa izateko oinarriak dituen da beste ereintza: irakurleekin topaleku izateko eraikitako poemarioak. Etengabeko berritze-legeen mende egonagatik bata eta bestea, lege horiek ez dira berdinak: poesiari soina zaharkitu eta azala horiztatu arren, betiko muina dario.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Lekuona-Berasategi familiari
- Rafael Labandibarri

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2005eko maiatza
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2302-2 (Lan osoarena) 84-457-2305-7
L.G.:	BI - I.372-05